

## Donostia Turismok eta Gipuzkoako Hotelek lankidetzahitzarmen berria sinatu dute hiriko turismoa sustatzeko

- ***Hitzarmenaren xedea da Donostiako eta lurraldeko jarduera turistikoa hobetzea***
- ***Hitzarmenaren ondorioz, prentsa bidai gehiago antolatu ahal izango dira. Prentsa bidaiei esker, Donostia bidai rankingetan eta komunikabide ospetsuetan agertzen da sarritan, nazioartean posizionamendua indartuz.***
- ***Marketing ekintzetan kolaborazioa ere landuko da, irtenalditxoen erreserba tresnak hobetzeko, prestigiozko eragileak erakartzeko etab.***

*Donostian, 2016eko apirilaren 26an*

Elkarlanerako hitzarmenari esker, hiriko turismoa sustatzeko helburuarekin 20 hotelek ehun gela baino gehiago eskainiko dituzte doan. Hiriaren promozioa sustatzeko eskaintzen zaizkie turismoko arduradunei ohe horiek, hainbat erabileratarako: fam trip-ak (eragile edo turoperadoreentzako familiarizazio bidaiak), press trip-ak (nazioarteko komunikabideetan erreportajeak idatziko dituzten kazetariarentzat) eta ikuskapen bidaiarentzat, aisialdi zein MICE/ kongresu turismorako.

Hiriaren promoziorako garrantzitsuak dira horrelako ekintzak, hiria preskibatzen duten profesionalen aurrean hiria nabarmentzen baita; hala nola, turoperadoreak edo kazetari espezializatuak.

Joan den urtean 136 komunikabiderekin kolaboratu zen; 2016an, Europako Kultur Hiriburuari esker, komunikabideen interesa handitu egin da, eta, Donostia Turismotik esfortzu berezia egin da interes hori aprobetxatzeko. Hala, urtariletik apirilera, **163 komunikabiderekin**

**kolaboratu da jada (90 prentsa bidaien bidez eta 73 online, informazioa eta materiala bidaliz).** Horri esker, Donostia, **nazioarteko komunikabide eta bidai ranking garrantzitsuetan** nabarmendua izan da, besteak beste: The New York Times, BBC, The Telegraph, The Daily Mail, The Guardian, Le Monde, Le Parisien, Le Figaro, L'Obs, The Evening Standard, The Independent, The Sunday Times, The Saturday Express Magazine, Elle, Fly Emirates, Korean Air, Lufthansa, Industry Magazine, The Scotsman, Fodor, Routard, Condé Nast Traveller etab.

**Donostia bidai sailkapen garrantzitsuetan:**

<http://www.sansebastianturismo.com/es/tematico/turismo/2652-san-sebastian-en-el-top-10>

**Donostia komunikabideetan:**

**Azpimarragarrienak:** <http://www.sansebastianturismo.com/es/tematico/turismo/2668-todos-recomiendan-san-sebastian>

**Zerrenda osoa:**

<http://www.sansebastianturismo.info/es/estamos-en/medios-de-comunicacion>

Promoziorako gelak uzteaz gain, hitzarmenaren arabera **Donostia Turismok antolatutako marketing ekintzekin bat egingo du** Gipuzkoako Hotelak elkarteak: Irtenalditxoetako Plana eta horretarako kudeaketa lanabesak hobetzea (Donostia / Gipuzkoa erreserbak). Aurten, gainera, marketing arloan beste hainbat elkarlan egitasmo abian jartzea ere espero da; hots, eragile profesionalak edo ospeko komunikabideak erakartzea.

Azkenik, hitzarmenak **MICE jarduerak ekartzeko bi eragileen arteko elkarlana** ere sustatu nahi du. Hautagaitzak diseinatu eta aurkezteko prozesuan elkarrekin lan eginda hirira kongresuak eta bilera profesionalak ekartzeko aukerak gehituko dira. Donostia Turismo & Convention Bureau eta Gipuzkoako Hotelen azken hitzarmenetako emaitzetan hala ikusi da.

Hitzarmenak urtebeteko iraupena izango du, eta bi aldeek proposatu daitezkeen bestelako sustapen-ekintzak lantzeko elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen dute.

**2016 urterako utzitako logela kopurua**  
**Donostia Turismo- Gipuzkoako Hotelak erakundeen arteko hitzarmena:**

Maria Cristina
Londres y de Inglaterra
Barcelo Costa Vasca
Hesperia Donostia
Mercure Monte Igueldo
NH Aranzazu
San Sebastián
Silken Amara Plaza
Tryp Orly
Villasoro
Avenida
Codina
Husa
Niza
Alemana
Ezeiza
Parma
Monte Ulia
Hotel Astoria
Hotel Zenit